

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko apirilak 2 • 142. zka.

Industrialdea

Gaur egun 66 enpresa daude bertan

Elkarrietzeko: Julita Gonzalez ■ Iriztia: Dotxi Lezkano ■ Kiroleku: Karle Zebele



**Aldibi,
etorkizunari
aurrea
hartuz.**



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

VOLVO

Mondrakar, S.L.



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



**MITSUBISHI
MOTORS**

Aldikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 712002 \ Faxa: 943 796565

**ARETXABALETAKO
INDUSTRIALDEA, S.A.**

**BASABE POLIGONOA EO-10 - Tfnoa. (943) 79.62.80 - Fax (943) 77 07 56
20550 Aretxabaleta - GIPUZKOA**



Sortuko zenuke zure enpresa?



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura
sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

Marije Perez (Langilea)

Gaur egun gazte gehienek ez dituzte enpresa bat sortzeko baliabide ekonomikoak. Nik uste dut, zure enpresa sortzeak hasieran behintzat sakrifizio handia suposatzen duela.



Iñaki Antxia (Langilea)

Bai, sortuko nuke nire enpresa. Zure enpresa sortzea abentura bat da, eta ez dakizu ondo edo txarto irten behar duen. Beste batendako lan egitea da samurrena.



Asier Murgoitio (Ikaslea)

Nahiago dut beste batendako lan egitea, errezagoa dela uste dut. Enpresa bateko zuzendaria izan baino nahiago dut honen laguntzailea izatea.



Maria Pilar Garcia (Langilea)

Beste norbaitendako lan egitea nahiago dut, samurragoa da.

Niri lantegi batean lan egitea gustatuko litzaidake.



e s k u t i t z a



Chernobil-go umeentzat laguntza

Chernobilen Lagunak elkartearen helburua Chernobilen gertatutako istripu nuklearrak eragindako umeak Gipuzkoako eta Deba Garaiko familietan denboraldi baterako dohainik hartzea da.

Elkartea osatzeko ideia Deba Garaiko familia talde batean sortu zen, euren etxeetan 1996ko eta 1997ko udaldietan Ukraniako umeak 64 egunetan eduki ondoren.

Elkartearen aurtengo helburua uztaila eta abuztuko hilabeteetan Chernobilgo hondamenak eragindako lurraldeetatik etorritako 30 ume hartzea da.

Elkartea arduratzen da Ukraniako agintari eta erakundeekin harremanetan jarri eta antolaketaren xehetasun guztiak gestionatzeaz: umeen joan-etorriko bidaia eta hemengo egonaldiak.

Batetik eta bestetik sortzen diren gastuak 2 milioitik gorakoak dira: umeen bidaia hegazkinez, baimenak, monitore lanetarako emakumearen bidaia eta egonaldia, Eusko Jaurleri-

tzako Osakidetza sailarekin aseguru medikoa hitzartzea...

Elkartek inongo diru bitartekorik ez duenez, erakundeek, antolamenduek, kultur taldeek, enpresek eta borondatez lagundu nahi duten pertsonak eman dezaketen dirulaguntzen menpe dago ia erabat.

Agertutako guztiagatik, eskertuko genuke zure erakundeak eman liezagukeen laguntza, gutxi izanda ere oso ongi hartua izango da-eta. Honako hauek dira gure kontu zenbakiak:

Euskadiko kutxa
30350047100471013455
Gipuzkoako kutxa
21010055670122223936

Argibide gehiago nahi izanez gero, gustora hartuko zaituztegu 77 11 32 telefonoan.

JESUS MARIA VILLAR
CHERNOBIL EN LAGUNAK
ELKARTEAREN LEHENDAKARIA

Oharra

Azken egunotan behar den moduan identifikatu gabeko gutun batzuk heldu dira Aretxagazetara. Gure aldetik ez dago argitaratzeko arazorik, baina iritziek balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, karta guztiek identifikatuta etorri beharko dute. Eskutitzaren egilea jakinda, eskutitza inzialak jarrita argitara daiteke hala nahi izanez gero.

Zuzenketa

Aurreko aleko erreportaiaren hodi-biltzailearen eta Udaleko aurrekontua aipatzerakoan kantitate izugarriak jarri genituen. Zifra handi horiek zuzenduz, esan behar da, hodi-biltzailearen kostua 970 milioitakoa dela eta Udaleko urteko aurrekontua, berriz, 700 milioi pezeta ingurukoa.

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 943 790105, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre. **Erredakzio eta publizitate arduradunak:** Iratxe Bengoa eta Amaia Gastañaga. **Banatzatzailea:** Itxaso Barbero. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroia, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Zapaturo arratsaldeko 7:30etan enkartelada egongo da herrian

Axu Kardenal atxilotuta

Pasa den martxoaren 21ean, arratsaldeko 7ak aldera Axu Kardenal atxabaltarra atxilotu zuten.

Inolako azalpenik eman gabe, kaletar jantzitako bi Guardia Zibilek zuzenean Madrileran eraman zuten, Karabantxeleko espexera.

Ondoren jakin denez, oraindik epaiketa egin gabe dagoen arren, ustez Araba komandoarekin kolaboratzeagatik espetxeratu dute. Deklarazio egunean, ez zuen konfiantzazko abokatu batekin egoteko aukerarik izan, ofizioko bat

izendatu zioten.

Deklarazio egunean, Aretxabaletatik autobus batek irten zuen Madrileko Audientzia Nazionalerantz, bertan Axu eta atxilotutako gainontzekoekin egoteko. Ordurarte inkomunikatuta egon zen. Axuk boltsa eta bestelako torturak salatu ditu.

Atxilotu eta deklarazio egunerarte, manifestazioak egon dira herrian. Baina aurrerantzean, zapatutan arratsaldeko 7:30etan enkartelada egongo da, herriko bi euskal presoen eskubideak eskatzeko.

101 odol-emale

Arabako odol bankukoak herrian izan dira martxoko hiru eguaztetenetan. Guztira 101 lagun animatu da odola ematera eta horietatik zazpik lehen aldiz eman du. Egun bakoitza aztertuz, martxoaren 11n, 35 odol-emale izan zen, horietatik hiru berriak eta hamar, odola eman barik gelditu zirenak.

Bigarren egunean, hilaren 18an, 30 izan ziren odola eman zutenak, berririk ez zen egon baina zazpik ezin izan zuten eman.

Bukatzeko, 36 odol-emale gerturatu ziren hilaren 25ean, lau berriak eta bost eman barik gelditu zirenak.

Lapurretak herrian

Pasa den martxoaren 18an, lapurreta egon zen herriko Otalora kaleko etxe batean. Bi mutil gaztek dirua eta hainbat bitxi eraman zuten. Jakin denez, Arrasaten ere honelako hainbat kasu eman zen. Etxe barnera sartzeko, lapurrek tarjeta batzuk erabili zituzten.

Arazo honi irtenbide bat aurkitzeko, baita aholku gisa ere, atea giltzaz iztea komeni da.

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABAleta

Zuzendaria:
Lyonel
Arquero

Dekorazioa:
Soraya
Arquero

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA


Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABAleta



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56



GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak batzar orokorra egin zuen martizenean



Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak Euskal txokoan kokatuko da

Udalak bost milioi pezetako aurrekontua onartu du telebistako inbertsiorako

Iazko uztailean elkarteak eratu ondoren, joan den martizenean, hilak 31, Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen.

Batzarrean Mikel Uribetxebarriak, elkartearen lehendakariak, telebistaren egoeraz berba egin zuen. Honekin batera, Naiara Arrese diruzainak iazko balantzea eta 98ko Aretxagazetako aurrekontuaren berri eman zuen. Atal honetan, aurtengo Aretxagazetako aurrekontua 8 milioi pezetakoa dela jakinerazi zuen, iazkoa baino milioi bat haundiagoa. Igoera honen arrazoia kontratatu den langile erdian dago batez ere. Era berean, aldizkariak azken bi urtetan izandako aldaketan berri entzuteko

aukera izan zen Ana Eriz zuzendariaren eskutik. Aurrera begirako helburuak ere aipatu zituen: aldizkariaren edukina finkatu eta beste herri aldizkariarekin harremana sendotu.

Batzarra bukatu aurretik, Aretxagazeta aldizkariako erredakzio kontseilutik irten eta sartu diren batzordekideen berri eman zen. Batzordean bi urte egin eta gero irteten dutenak honako hauek izan dira: Ana Eriz, Ines Gartzia, Naiara Arrese, Arantxa Eguren eta Unai Loidi. Sartzen direnak, berriz, Koldo Zubizarreta, Gotzone Arrese, Aitor Irure, Gorka Etxabe eta Gurutze Larrinaga. Azken hauekin iaztik jarraituko dutenak: Irune Iturbe, Mirari Altube eta

Alberto Izagirre dira.

Sistema digitala telebistarako

Mikel Uribetxebarriak adierazitakoaren arabera, telebistak zortzi milioitako inbertsioa eskatzen du. Horietatik hiru, Loramendi elkarteak jarriko ditu, antena jartzeko erabiliko dena. Udalak bestalde, gainontzeko bost milioiak emango ditu inbertsio gastuetarako.

Inbertsio txikiarekin kalitate ona lortu nahi dela azpimarratu nahi izan du Mikelek, eta horretarako sistema digitala erabiliko dela. Bi-hiru kama-ara erosi nahi dira, nahasketa mahai bat eta edizio mahaia. Honez gain, emisiorako beste aparatu bat beharko litzateke, repetidorea eta antena.

Euskal Txokoan kokatuko da

Datorren iraila eta urria bitartean, herriko telebista Euskal Txokoan kokatuko da. Hala ere, ordurako hainbat lan aurreratzea espero dute. Hasiara batean, inbertsio eta diru kontua da gehienbat landu nahi dena.

Hala ere, lehenengo urrats bezala, irailtik aurrera 2 langile egun erdiz aritzea onartu da.

Programazioari dagokionez, albisteek eta herriko jendeari egindako elkarrizketek zati handia betekoko dute.

Telebistaren proiektua aurrera ateratzen ari diren partaideen helburua, telebista sortu eta mantentzea da; eta ez indar gehiegiz hastea eta berehalakoan hiltzea. Horregatik, telebisino honek ez du egun osoko

Etxabe
harategia

Durana 4
☎ 79 16 61

ARBULO
HARATEGIA

Santa Kúrtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETAKO

OSKAR
HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 79 59 05
ARETXABALETAKO

Aurten ere Gurutz-bidea egingo da Aste Santuko ospakizunetan

Eguen Santuan hasi eta Pazko Domeka bitartean ospakizun ugari antolatu du Liturgi Batzordeak. Iaz horren arrakastatsua izan zen Gurutz bidea aurten osterara ere egingo da.

Eguen Santuan, goizeko 10,30etatik 12etara bakarkako penitentziaren sakramentuak hartuko du lekua. Arratsaldean, berriz, Jaunaren azken afariko Eukaristia egingo da monjetan arratsaldeko 5,30etan eta 7etan parrokiaren Eukaristia Nagusia. Gaueko 9etan otoitza izango da monjetan.

Eguakotx Santuko ekitaldia Gorespenekin hasiko da monjetan goizeko 9etan. Ondoren 11etan Gurutz Bidea egingo da parrokiatik Isurietara. Aurtengo urtean gainera, megafonia berria erosi dela eta gurutzea egurrezkoa



izango dela adierazi du Don Antonio parrokoak.

Arratsaldeari Jaunaren nekaldiko ospakizunak emango dio hasiera, 4retan monjetan eta 5,30etan parrokiaren.

Zapatu Santuan, Gorezpenak izango dira monjetan goizeko 9etan. Gauean, berriz, Pazko Gaubela eta Bataioak egingo dira, parrokiaren 9etan eta monjetan gaueko 10etan.

Ekitaldiekin bukatzeko, esan beharra dago, Pazko Domekako ekitaldi guztiak domeketako orduetan egingo direla.

Ikasle alemaniarrekin lehen ikasle-trukea



Almen ikastolak, plurilinguismoa proiektuaren barruan, eskola alemaniar batekin ikasle-trukea egin du. Talde hau martxoaren 25ean heldu zen Euskal Herrira eta Almeneko ikasleekin batera argazki hau atera zuten.

Bertan egingo duten egonaldian, klaseak gaztelaniaz jasotzeaz gain, Euskal Herriko hainbat leku eta ohitura ezagutzeko aukera izango dute. Atzo adibidez, Bilbora joan ziren, Gugenheim museoa bisitatzen. Bide batez, Gernika ezagutzeko aukera ere izan zuten. Bitxikeri bezala, patata tortila egiten ere erakutsi zitzaizkien alemaniarrei.

Hamar egun hemen igaro eta hainbat ekintza egin ondoren, bihar, apirilak 3, ostirala bueltatuko dira Nuremberg-era (Alemania).



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

Elgeako zentral eolikoaren ingurugiro azterketa aurkeztu zen udaletxean

Elgeako zentral eolikoaren plan berezia erakusgai dago udaletxean apirilaren 14a arte. Alegazioak egiteko epea zabalik dago

Seic enpresako biologo batek Elgeako zentral eolikoaren inguruan egin den ingurugiro azterketaren berri eman zuen martxoaren 26an udaletxean. Ikerketa ingurugiroa ahalik eta gutxien kaltetu asmotan egin da eta bertan jasotzen dira, besteak beste, aurreproiektuak erroten kokapenean, pisten eraikitzean eta beste hainbat arlotan izan duen aldaketa.

Ingurugiro proiektua

Biologoak jakitera eman zuenez, parkearen aurreproiektuak aldaketa dexente izan du ingurugiro azterketa hau egin ondoren. "Hasiera batean errotak edozein lekutan kokatuta zeuden, baina ingurugiro azterketaren ondoren, errotak kalte txikiena egiten duten lekuetan jarri dira. Basorik ez dagoen lekuak bilatu dira eta zuhaiz mozketa ahalik eta txikiena izan da".

Dena dela, guzti hori ikerketan garbi azaltzen da, hau da, zein landaretza mota kaltetzen den, zein zuhaitz botako diren...

Proiektuaren beste aspektu bat, parkea egiteko erabiliko diren bideena da. Larreatik igotzeko dagoen bidea erabiliko da, eta gehienez ere bidea metro erdi bat zabalduko zela adierazi zuen. Dena den, lehengo bidea errespetatuko den arren, zati batzutan berria egin behar izango da, aldatz batzuk eragozteko esaterako. Haize-erroten arteko distantzian ere, lehen dagoen pista erabiliko da zati haundienean, baina, pistarik ez dagoen lekuetan berria zabaldu beharko da.

Era berean, pisten egokitzeak eta berriak egiteak suposa dezakeen



Haize errota batek 66metroko altuera du guztira, konparaketa bat egiteko 21 pisutako etxe baten altuera

trafiko eragozteko, neurriak hartzeko eskatzen du azterketa honek.

Parkean eraikiko den azpies-tazioak 5.000 m² izango ditu oinarrian. Inpakturik txikiena izateko borda itxurako eraikuntza egingo dela jakitera eman zuen biologoak.

Dena den, gai hauek eta gehiago ere jasotzen du parke eolikoaren ingurugiro azterketak, horiek jakina, sakonago ikusi eta alegaziorik egin nahi izanez gero, udaletxean dago proiektua eta epea apirilaren 14a artekoa da.

Desadostasun ugari

Hitzaldira hurbildutakoek kezka eta desadostasun ugari erakutsi zuten proiektuaren inguruan. Beharbada hitzaldian atera ziren gai gehienak ez ziren zuzenki biologoari egin beharrekoak, Eolicas de Euskadi proiektuaren bultzatzailei baizik.

Orokorrean energia berriztagarrien alde zeudela azaltzen bazu-

ten ere, hau aurrera eramateko moduez eta lekuaz ezadostasunak azaldu zituzten. Esate baterako, Aizkorriko parke naturalaren eta Elgeako zentralaren arteko kontraesana. Zentral honek sortuko duen energia ez dela alternatiboa izango, konplementarioa baizik. Izan ere, Elgeako zentral eolika eginda, eta inguru denak sakrifikatuta, Aretxabaleta baino zertxobait handiagoa den herri batendako (8.500 biztanle) energia lortuko genukeela soilik adierazten zen eta guzti horrek merezi al zuen. Honekin batera, gure mendiak ditugun gune natural bakarrak industrializatzen baditugu, nora joko dugun ere galdetzen zen.

40 haize-errota

Elgea mendilerroan 40 haize-errota kokatuko dira, horietatik lau Aretxabaletako lurretan. Haize errota batetik bestera, batez beste, 120 m.tako tartea egongo da eta errota guztien arteko distantzia, bestalde, 3,6 km.takoa da. Errota bakoitzak haizearen eraginez biraka ibiliko diren hiru beso ditu. Beso bakoitzak 21 metroko erradioa du eta errotaren altuera 45 m.takoa, guztira, berriz, 66 m. Konparaketa bat egiteko, 21 pisutako etxe batek duen altuera.

Errotek sortuko duten argindarra (24 Mw guztira), dorre batetik bestera lurpetik eramango da, azkenean azpies-tazioan egongo den transformadorera eraman arte. Bertatik, alta-tentsioko linea bidez, Vitoria-Itsasoko alta-tentsioko lineara joango da energia.

Aurtengo aurrekontuak onartu ziren martizeneko plenoan

Joan den martizeneko plenoan onartu ziren aurtengo aurrekontuak. Zinegotzi guztiak azaldu ziren bertan, HBko Jesus Kortabarria eta Mikel Otero izan ezik. Aurrekontuak gobernuko alderdi guztien aldeko botuekin onartu ziren. HB, berriz, abstenitu egin zen, aurrekontuaz ados egon arren, alkatetzatik kanpo dagoenez, ez duelako aurrekontua gestionatuko.

Aurtengo aurrekontua 774.531.276 pezetakoa da eta Udaleko funtzio desberdinen arabera sailkatu da, eta ez orain artean moduan areaka. Horrela, diru kopuruaren arabera arlo garrantzitsuenak honako hauek dira: azpiegitura sortu eta hiriztatzea (152.364.634 pta), ur hornikuntza eta saneamendua (67.812.315

pta), ongizate zerbitzu orokorrak (40.227.507 pta), euskara (30.966.210 pta), kiroletxea (29.511.520 pta)...

Aipatzekoa da Urats-gain egoitzaren aurrekontua Udaleko aurrekontuetatik aparte doala. Azken hau

ia 60 milioi pezetakoa da.

Partida aipagarriak

98. urtean sartu diren partida berriak honako hauek dira besteak beste: lurren erosketarako 50 milioi; kiroletxeko gimnasioko haunditze eta berrikuntzarako 10 milioi; euskera sailean, telebistarako 5 milioitako inbertsioa eta Nafarroa 2 zenbakiko lokalaren egokitzapenerako ia 6 milioi, aurrerantzean Udal euskaltegia kokatuko da bertan; ongizate zerbitzuari dagokionez, Durana 13 zenbakian Atzegikin batera egin nahi diren egoitza txikiendako 8 milioi, eta azkenik, erakuntza publikoen (adibidez udaletxea) mantentzen diren eta egokitzapenerako 8 milioi.

URATS-GAIN EGOITZA

SARRERAK	PTA
-Tasak eta bestelako zergak	19.923.360
-Transferentzia arruntak	36.206.496
-Ondare-sarrerak	20.000
-Kapital-Transferentziak	3.593.600
GUZTIRA	59.743.456
IRTEERAK	PTA
-Pertsonal gastuak	23.157.856
-Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	32.982.000
-Finantza gastuak	10.000
-Inbertsio errealak	3.593.600
GUZTIRA	59.743.456

Urats-gain egoitzako aurrekontua aparte doa

IRTEERAK	PTA
- Pertsonal gastuak	121.528.852
- Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	235.157.209
- Finantza gastuak	21.169.729
- Trasferentzia arruntak	105.959.660
- Inbertsio errealak	193.810.984
- Kapital-trasferentziak	47.410.808
- Finantza pasiboak	49.494.034
GUZTIRA	774.531.276

SARRERAK	PTA
- Zuzeneko zergak	113.618.113
- Zeharkako zergak	25.000.000
- Tasak eta bestelako zergak	175.882.429
- Trasferentzia arruntak	322.743.876
- Ondare-sarrerak	34.400.120
- Inbertsio errealen besterenganaketa	4.500.000
- Kapital-trasferentziak	16.275.378
- Finantza-pasiboak	82.111.360
GUZTIRA	774.531.276


Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

Izozkitekiki-Gozotegia

IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABAleta



Basabe
Industrialdea
Aretxabaleta

Tfnoak: 71 21 12
71 22 68

Aholkularitza

Julita Gonzalez

“Basotxoko bazkide izateak, abantaila ugari eskeintzen du”

Herriko jubilatuek maiz ikusi ditugu alde batetik bestera ekintza bereziak aurrera ateratzen. Baina guzti honek, koordinazio eta antolaketa baten beharra dauka. Basotxo Elkarteak da honetaz arduratzen den taldea. Oraingo honetan, azken bi urteetan bertako idazkaria izan den Julita Gonzalezekin egon gara.

- Zeintzuk dira Basotxo Elkarteko idazkariaren eginbeharrak?

- Hilean behin egiten dugun batzarraren aktak prestatzen ditut. Bestalde, bazkide berrien fitxak ere egiten ditut, baita urteko memoria eta balantzea ere. Orokorrean, idazkariaren lana zaila ez izan arren, erresposabilitate handikoa dela uste dut. Hala ere, oso interesgarria da. Gelditzen zaizkidan beste bi urteetan ere, gogoz lan egingo dut.

- Idazkariaren gain, zein beste partaide dago batzordean?

- Batzordea, lehendakariak, lehendakari-ordeak, idazkariak, idazkari-ordeak, diruzainak eta bozeramaleek osatzen dugu.

- Zein ekintza antolatzen dituzue?

- Pasa den urtean, hitzaldiak prestatu genituen, baita eskulanak eta hainbat irteera ere. Aurten Gugenheim museoan egon gara, eta Bellas Artesera joateko asmoa ere badugu. Zine Forum-ak egiteko gela bat daukagu, eta hemen ere ekintza ugari egin daiteke, baina berau eramaten animatuko den norbaiten bila gabiltza.



“Jende gehiago animatu beharko litzateke ekintza hauetara”

Gipuzkoa mailako marmitako txapelketetan ere hartzen dugu parte, iaz gainera, garaile izan ginen. Honetaz gain, urtean lau irteera egiten ditugu. Joan den urtean adibidez, Calahorrara joan ginen, eta bertako museoa ikusteko aukera izan genuen.

- Jende asko animatzen da antolatutako ekintzetan parte hartzera?

- Hasieran kostatzen da baina gero jende pila animatzen da. Hiru autobus betetzera ere iritsi gara. Irteeretan jende askok hartzen du parte. Aurreko urtean egindako

eskulan ikastaroan, hamar pertsona apuntatu zen. Ez dago bat ere gaizki, horrelako ekintzetan talde txikiak hobe moldatzen dira eta. Hitzaldietan, gaixotasunei buruzkoak diren adibidez, talde majoa elkar-tzen da. Aurten, nobedade bezala, herentzia, elikadura eta hipertentsioari buruzko hitzaldiak egongo dira.

- Zein dirulaguntza jasotzen duzue ekintza hauek egin ahal izateko?

-Eusko Jaurlaritzak emandako diruarekin egiten ditugu. Bazkideek urteko 500 pezeta-tako kuota ordaintzen dute, eta diru honekin ezingo genituzke prestatzen ditugun ekintza guztiak egin.


Hasiera batean jasotzen zen dirua, bazkide kopuruaren araberrakoa zen. Gaur egun egiten diren ekintzak hartzen dira kontutan. Prebentzio eta kulturako ekintzei garrantzi gehiago ematen zaie.

- Zein abantail ematen ditu bazkide izateak?

- Urtean 500 pezetagaratik ekintzetan parte hartzeko aukera eskaintzen da. Gainera, bazkide ez direnak baino askoz merkeago. Edariek eta honelako produktuek ere, prezio erakargarriagoak dituzte. Kafe batek adibidez, 50 pta. balio du bazkideentzat.

- Zein satisfakzio ematen dizu Basotxo elkartearen idazkari lana egiteak?

- Egiten dudana oso interesgarria da. Jende gehiago animatu beharko litzateke honelako ekintzetan murgiltzera. Gainera, herriarentzat ere oso aberasgarria da. Lerro hauek irakurri ondoren jende gehiago animatzea espero dut.



Aurrejubilazioa beltz

**“Aurre-
jubilazioa oso
garestia
aterako da
aurrerantzean”**

Oharra: Aste honetan Madrilan egon den kongresua dela eta, iritzi artikulua honek azken orduko aldaketak izan ditzake. Kontuan hartu lerro hauek pasa den astean idatzitakoak direla.

1 998ko martxoa, kooperatibetan lan egiten dugunontzat hil gogoragarria izango da aurrerantzean, aurrejubilaziorako eskubidea zutenentzat gehienbat. Jakina denez, Segurtasun Sozialak Espainiako Lan Ministeritzaren aginduz atera berri duen barne araudi baten ondorioz, Autonomo Erreginenera kotizatzen dugunok, nahiz eta 1967 baino lehenago Segurtasun Sozialera kotizatuta eduki, ez du kontutan hartuko aurrerantzean orain arteko Aurrejubilaziorako eskubidea.

Hori dela eta, hainbat eta hainbat kooperatibetako bazkideen itxaropenak eta kooperatiben aurrejubilazio planak pikutara joan dira une batetik bestera. Edo beste ikuspuntutik begiratuta, aurrejubilazioari heldu nahi dionak beste era batera egin beharko ditu diru kontuak.

Erabaki honen ondorioz, Segurtasun Sozialeko Autonomoetatik ezin gara 65 urte baino lehenago jubilatu, beraz, orain arteko aurrejubilazioak ezin izango dira gauzatu.

Zer irtenbide gelditzen da orduan kooperatibetan lan egiten dugunontzat? Une honetan, Lan Ministeritzak bere erabakia aldatzen ez badu behintzat, 60-65 urte bitartean lana egiteari utzi, Lagun Aron jubilatu bakoitzari dagozkigun pentsioaz

eta Autonomoetara kotizatzen jarraitu 65 urte arte. Baina, alternatiba honek baditu bere eragozpen ekonomikoak.

Pentsa, 1,8 lan-indizea duen bazkide bati 35 urtetan Lagun Arora kotizaturik, 60 urterekin aurrejubilatuz gero, gaur egun, 85.000 pezeta inguruko pentsioa hilean gelidituko litzaiokeela eta Autonomoetara kotizatzen jarraitu beharko lukeela 65 urte arte hilean 29.000 pezeta ordainduz gutxienezko kuota bezala.

Beraz, araudi berri honen ondorioz, aurrejubilazioa oso garesti aterako da aurrerantzean eta aztertu egin beharko da zenbaki guztiak egin ondoren, nola eta zein baldintzetan izan daitekeen posible, ondo neurtuz enpresak jar ditzakeen baldintza ekonomikoak eta beren gogoz aurrejubilazioa nahi duten pertsonen interesen arteko oreka lor dadin.

Nolanahi ere azpimarratu, egiten dena egiten dela, aurrerantzean gutako bakoitzaren ardura izan beharko duela etorkizuneko norberarren jubilazio planak.

PATXI LAZKANO

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**ORTOPEDIA
ORTO LAGUN**

**Etxean gaixoren bat badaukazu,
zuri laguntzeko prest gaude:**

- Ohe artikulatuak
- Zirkulazioari eragiteko koltxoia...

Zuk behar duzun laguntza guztia!

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 34

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

Industrialdeko enpresen erreinuan

Aretxabaletako industrialdea Euskal Herrian sortu zen lehentarikoa dugu. Orain 16 urte jarri zen martxan, eta guztira 66 enpresa kokatu dira bertan. Honek 646 lanpostu inguru suposatu du. Ez da ez zifra makala, gainera, Euskal Herrian lurra hain garesti dagoela kontutan hartuta, horrelako industrialdeak euren kontu sortu ezingo luketen enpresa askori, aurrera irtetzeko aukera eman die.

Mota guztietako enpresak aurki

ditzakegu bertan, tailerretatik hasi, zerbitzu enpresa eta mota desberdinetako ingieneritzak. Gaur egun Industrialdeko tailer eta ofizina guztiak beteta daude, nahiz eta, enpresen leku aldaketen ondorioz, berriei etortzeko aukera ematen zaien.

Gaurkoan gure herriko industrialdean kokatzen diren enpresa batzuk ezagutaraztera eman nahi izan

ditugu, besteak beste, noiz sortu ziren, langile kopurua, egiten duten aktibitatea... Badakigu enpresa asko eta asko kanpoan utzi ditugula, ezinezkoa baita denak aipatzea. Dena den, aktibitatea desberdina duten enpresak aukeratzen saiatu gara edo eta arrazoi bat edo besteagatik aipagarriak iruditu zaizkigunak.

Key taldea

Key taldea 1994ko irailean sortu zen. Hasieran Durana kaleko pisu batean zegoen bulegoa eta bertan lagun batek egiten zuen lan. 1996ko irailean Key taldea C. B. izenarekin gaur eguneko hiru lagunekin osatu zen. 95ean industrialdeko bulego batean kokatu ziren, "momentu hartan AZK talderako lan ugari egiten genuenez, koordinazio hobea izateko bertara hurbildu ginen", adierazten dute. Gainera, "pisu batean egotea baino kokapen hobea iruditu zitzaigun industrialdea, merkatura zabaldu ahal izateko".

Key taldeak diseinu editoriala eta diseinu grafikoa lantzen du, bere helburua, aurreinpresioari dagozkion gaiak lantzea izanik. Horrela, diseinu grafikoa, logotipoak, imagen korporatiboak, etiketak, ilustrazioak, folletoak, kartelak... egiten dituzte. Diseinu editorialean, berriz, beste honako hauek sar daitezke: liburuak, aldizkariak, aldizkako publikazioak eta enpresendako publikazioak.

Beren merkaturia zabala da, hasi erakunde ofizialetatik, Udaletxe, Deba Garaiko Mankomunitatea, enpresa desberdinak, eskolak...

Aurrera begirako helburua, merkaturia haunditzea badute ere, dituzten bezeroekin lan ugari egiten jarraitu nahi dutela diote.



Atxabaltarrek sortutako enpresa da Key taldea

AZK S.A.

1987. urtean Arrasaten sortu bazen ere, 1992. urtean Aretxabaletako industrialdera etorri ziren, Arrasaten leku egokirik ez zegoela eta Aretxabaletan leku egokia aurkitu zuten. Taldea hiru lagunekin hasi bazen ere, gaur egun bederatzi langile daude, horietatik lau Bilbon ari dira lanean.

Hiru unitatetan banatzen da enpresaren aktibitatea: AZK taldea, produktu berrien lantzetan arduratzen dena; AZK Corporate, aholkularitza, komunikazio eta erlazio publikoen ardura duena eta azkenik, AZK interactive, Marketing-a internet-en bidez lantzen duena. Beraien asmoa aurrerantzean hiru unitateak kontsolidatzea da, Iñaki Azkoagak adierazi digun moduan, bakoitzak bere nortasuna izan dezan.

Lucio Garay S.A.

Lucio Garay S.A. Jose Uribesalgoren gidaritzapean Arrasaten eratu zen 1982an. 87an lantegiak espazio haundiago behar zuenez, Aretxabaletara etorri zen, 13 langilekin. Azken bi urtetan langilegoa nabarmen igo da, gaur egun 81 langile izatera iritsi da eta. Igoera honen arrazoia, lantegiak izan duen salmenta igoeran dago, izan ere, Juan Ignacio Aranburuzabalak adierazi bezala, salmentak 80 milioitakoak izatetik, aurten esaterako 1.000 milioitik gorakoak izatera iritsiko direlako. Beraz, "azken bi urte hauetan, bikoiztu egin dugu produkzio, salmenta eta langile kopurua. Momentu honetan kontsolidatzen ari gara".

Atzerrian merkatu garrantzitsua du Lucio Garay enpresak, produkzioaren %80a atzerrira saltzen duelako, Mexiko eta Ipar Ameriketara. %17a Euskal Herrian eta gainontzekoa European.

Lucio Garay-n aluminiozko fundizioa egiten da eta General Motors eta Christler moduko konpainiendako automoziozko pieza ugari egiten ditu.

Doikalse

Aretxabaletako industrialdean bertan 1988. urtean sortutako enpresa dugu Doikalse. Langile bakar batekin hasi bazen ere, gaur egun zazpi langile dira bertan lan egiten dutenak. Arizko elektro higadura eta penetrazio bidezko elektro higadura bidez, trokelak, moldeak, utilajeak, prototipoak, makina herramintarako preziozko elementuak... egiten dituzte. Hasiera batean, arizko elektro higadura bakarrik erabiltzen bazuten ere, merkatuaren eskarira egokitzeko, beharrezkoa izan zuten orain urte batzuk penetraziozko elektro higadura sartzea. Gaur egun sistema berri hau erabiliz, merkatua haunditu nahi dute.

Euskal Herriko bezeroentzat lan egiten dute gehienbat, hala ere, Espainian ere badute merkatua.

Kappa S.L.

San Martin auzoan izan zuen bere lehen egoitza Kappa S.L. enpresak. 1964an sei langilekin ekin zion injekzio plastikozko iharduerari. Gaur egun 13 lagunekin industrialdean jarraitzen du. Besteak beste, plastikozko mangoak, Copreci eta Fagorrendako plastikozko pieza txikiak, nibelak eta ferreteria eta industri hornikuntzetarako piezak egiten ditu.

Euskal Herri mailan zabaltzen da bere merkatua gehienbat, Italia eta Ameriketara ere esportazio txiki batzuk egiten dituen arren.

Momentu honetan Maite Axpe lantegiko kideak aurreratuakoen arabera, iraila inguruan ISO kalitatezko ziurtagiria ateratzeko gertatzen ari da enpresa.

Ondoan S. Coop.

Ondoan S. Coop. ingurugiro enpresak Zamudion egoitza zentrala izan arren, aholkularitza ofizina Aretxabaletan du. Iazko uztailen etorri ziren gure herrira eta lau lagun daude bertan. Bere iharduera garrantzitsuen ingurugiro arazo eta gaitan aholkularitza ematea da, hau da, enpresak ingurugiro arloko legetan dituzten bete beharrez informatzea, izurketa likidoak, atmosferara egiten diren aire-jaulkipenak... Arlo honetan enpresek bete behar dituzten baldintzen prozesuak ezartzen dituzte. Enpresa eta erakunde publikoentzako lan egiten dute eta industrialdean enpresa asko dagoenez, Jabier Collado enpresako kideak adierazi duenez, momentuz behintzat hemen jarraitzeko asmoa dute. Gainera, gehitzen du, hemen inguruan automoziozko piezak egiten dituzten enpresa asko dago eta horiei exigentzia haundiak jartzen dizkie legeak.

Ediren

Aurretik beste enpresa batzutan lan egindako profesionalak Ediren diseinu enpresa sortu zuten 1994an. Gehienak arrasatearrak izan arren, Aretxabaletako industrialdeak euren aktibitatearako leku aproposa eskaintzen zuenez, bertan kokatu ziren.

Diseinu industrial lantzen du Edirenek, hau da produktuaren irudia alde batetik eta bestetik, produktuaren diseinu grafikoa. Jose Maria Unzueta iritzi, merkatuari begira oso garrantzitsua da produktuaren irudia lantzea. "Produktuak erakargarria eta razionala izan behar du merkatuan konpetigarria izateko. Horregatik produktuaren arrakastaren zati bat gure esku dago". Hala ere, diseinuaren mundua nahiko berria denez, honen garrantziaz jabetzea, gizarteari kostatu egiten zaiola onartzen du.

Edirenek inguruko enpresendako eta Euskal Herri mailan lan egiten du gehienbat.



Tailer ugari dago industrialdean

Zenbaki S. Coop.

Zenbaki S. Coop Aretxabaletako industrialdean sortu zen orain dela hamaika urte. Urte hartan beste aukerarik ez zegoen hemen inguruan eta Rosa Beitia Zenbakiko gerenteak Aretxabaletan kokatu zirela kontatzen du.

Aholkularitza enpresa hau, lau langilekin hasi zen lanean eta gaur egun hamar langile ari dira bertan. Zenbakik, inguruko enpresentzako eta partikularrentzako, aholkularitza lanak egiten ditu, hau da, aholkularitza kontablea, fiskala, juridikoa, laborala eta aseguru-artekaritza zerbitzuak eskaintzen ditu. Rosaren iritziz, enpresak leku komertzialagoan kokatuta egon beharko luke, hala ere, enpresa sortu zenetik bezeroak nabarmen gehitzen joan direla adierazi du.

Eguzkigraf Koop. Elk.

Eguzkigraf inprimategia Aretxabaletako industrialdean kokatu zen lehenetakoa dugu. Hala ere, sorreratik hona hainbat leku aldaketa izan du. Arrasateko Legarra pabiloian sortu zen 1979. urtean. Hiru inprenta elkartu ziren horretarako: Aretxabaletako Gráficas Leniz, Inprenta Goia Arrasatekoa eta Gráficas Mondragonosa. Lau bat urte Arrasaten egin ondoren, Aretxabaletako industrialdean kokatu zen. "Industrialde batean kokatzea aukera ona zela ikusi genuen- dio Puri Beltran de Herediak- eta gainera abantaila bat ere bazuen, lokala errenta bidez ordaintzen joan eta poliki-poliki erostearena". Orain lau urte beste leku aldaketa bat ere izan zuen, gaur egun dagoen F-0-4 pabiloira aldatu baitzen. Inprimaketari dagozkion hainbat lan egiten du Eguzkigraf-ek, liburuak, katalogoak, foiletoak, filmazioak, aldizkariak, egutegiak... Bere lan merkatua, 10 Kmtako zirkunferentzian zabaltzen da, baina hala ere, Gasteiz eta Bilborako lanak ere egiten dituzte. Puriren berbetan, aktibitate honetan kompetentzia handia egon da eta dago. Dena den, kompetentzia handia izan arren, orain artean bezala edo hobeto jarraitu nahi lukete aurrerantzean.

Diara desing

Diara produktuen diseinua eta garapena lantzen duen enpresa dugu. 1986. urtean Arrasateko Eskola Politeknikoaren babesean sortu eta orain zazpi urte Aretxabaletako industrialdean kokatu zen.

Diseinu industrialala lantzen du Diarak. Produktu bat bere funtzionaltasun eta kalitateaz gain, beste ezaugarri batzuk ere osatzen dute: erakargarritasunak, ergonomiak, estetikak, erosotasunak... guzti hau da diseinua.

Momentu honetan Diarak proiektu desberdinetan buru-belarri lanean dihardu; CAFekin Sao Pauloko metroa garatzeko lanean dihardu; Fagorrek 98-99 urteetarako aterako dituen produktu berrien, labeak, garbigailuak ... diseinua eta Siemens enpresarekin batera Australian jarri nahi diren telefono publikoen diseinua ditu momentu honetan proiektu aipagarrienak.

Beraz, mundu mailan lan egiteko ahalmena duela erakusten du Diarak, gainera, bere bezeroen %7a atzerritarra dela jakinarazi digu Elisabeth Urrutia gerenteak.

Bere etorkizunean mundu mailako merkatu berriak bilatzea du erronka, beti ere, bere zerbitzuen eta ekipoen teknologia hobetuz.



Industrialdean kokatu zen lehen enpresetako bat da Eguzkigraf inprimategia

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Harategia

BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

Iban Sastre 2. Valladolideko bueltan



Bukatu berri den txirrindularitzako Valladolideko bueltan,

sailkapen orokorrean, 2. postua lortu zuen Iban Sastre atxalbaltarrak. Hala ere, etapa erregin-an, garaipena eskuratu zuen. Lehenengo etapan 31^o galdu zituzenez, azkenean ezinezkoa izan zitzaion txapela lortzea.

Afizionatu mailan dabilen bigarren denboraldia da, eta egun, Iberdrola taldearekin aritzen da. Orokorrean euskal txirrindulariek maila ona erakutsi zuten, lehenengo 10 sailkatuetatik, 6 bertakoak izan ziren eta.


Frisbée, patinaia eta street-hockey ikastaroak kirol-etxean

Kirol alternatiboen ikastaroak antolatu dira Soin Hezkuntzako irakasle, eskola-kiroleko monitore edo eta interesatuta dagoen edonorentzat.

Eskainiko diren ikastaro guztiek, 4 ordutako iraupena izango dute, goizeko 9:30etatik 13:30etara hain zuzen ere. Frisbée ikastaroa adibidez, apirilaren 15ean izango da. Patinaia 16an, eta azkenik street hockey-arena 17an. Azken bi ikastaro hauetan aritzeko, ez da beharrezkoa patinatzen jakitea.

Ikastaro hauen prezioa, Deba Garaiko Kirol zerbitzuetako abonatuentzako 1.500 pezetatakoa da, gainontzekoentzat aldiz 2.000 pezetatakoa. Ordainketa, Euskadiko Kutxako 202.0.00057.8 kontu korrontean egin beharko da.

Izen ematea, Aretxabaletako kirol etxean egin behar da (79 64 61), hala ere, Arrasate, Bergara eta Oñatin emateko aukera ere bada. Apuntatzeko epea, apirilaren 14an eguerdiko ordu batetan itxiko da.



Pala Txapelketa Aretxabaletan

Apirilaren 25etik ekainaren 20ra bitartean, pala txapelketa egongo da Aretxabaletan.

Binakako partiduak izango diren hauek, Deba garaiko pilotalekuetan gomazko paletan jolasten aritzen direnei zuzenduta daude.

Txapelketan bi fase egongo dira.

Lehenengo fasea liga erara izango da, 8 bikoteko taldeek, elkarren aurka jokatuko dutelarik. Bigarren fasean, aldiz, final laurdenak, final erdiak eta finalak jokatuko dira.

Bestalde, txapelketa honetako emaitzak, Deba Garaiko Txapelketa zirkuitorako puntuatuko dute.

Konpetizio honetan parte hartu ahal izateko, apirilaren 22a baino lehen izena eman beharko da kirol-etxean. Honen prezioa, Deba Garaiko zerbitzuetako abonatuentzat 1000 pezetatakoa da, gainontzekoentzat aldiz, 2.000koa.

Felix eta Alberto Dhaulagirirako bidean

Juanjo San Sebastian, Jon Lazkano, Carlos Tamayo eta Iñurrategi anaiek osatutako espedizioak, pasaden astelehenean Nepaleko Dhaulagirirako bidea hartu zuen. Zortzi milako mendiaren igoeran, TVEko "Al filo de lo imposible"

saiorako grabaketak egingo dituzte. Bestalde, Felixek adierazi duen bezala, "espedizio honetako gure helburua ez da itsu-itsuan gailurra egitea, filmaketa lanari garrantzia ematea baizik". Telebistako programa honen helburua, zortzimilako mendi guztietan dokumentalak grabatzea da.

Dhaulagiri mendiaren igoera, bide klasikotik egingo dute. Hala ere, "Ekaitzen mendia" bezala ere ezagutzen den mendi honetan, haize gogorra izaten dela kontutan hartzekoa da.

Bi hilabete inguru iraungo duen espedizio honetako gailurra, maiatzean egingo dute.

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26

LEIBAR
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Karla Zabala

“Fisiokulturismoarekin gorputza oso ondo ezagutu daiteke”

Karla Zabalak, hasiera batean saskibaloian jokatzeko bazuen ere, orain dela 3 urte fisiokulturismoa praktikatzeari ekin zion. Lehenengo urratsak Aretxabaletako Kiroldegian egin zituen, ondoren Arrasateko Saioa gimnasia joan zen arte.

• Noiz hasi zinen fisiokulturismoa praktikatzeko?

Orain dela hiru urte inguru ekin nion kirol honi. Hezur batetako arazo bat nuela eta, medikuak gimnasio batean hastea gomendatu zidan. Beraz, Arrasateko Saioa gimnasioan hasi nintzen fisiokulturismoa lantzen. Hiru urtetan aritu arren, oraindik printzipiante bat naiz.

• Zergatik aukeratu zenuen kirol hau?

Nire anaia izan zen fisiokulturismoa praktikatzera eraman ninduen. Berak kirol hau praktikatzeko zuen, eta nik, aldiz, saskibaloia. Kirol biak egitea egokia izango litzatekeela esan zidan, saskibaloian ondo ibiltzeko lagungarria izango zela eta.

• Zein denbora eskaintzen diozu fisiokulturismoari?

Astean bost egunetan aritzen naiz, bi ordu eta erdiko entrenamendurekin egun bakoitzeko. Zerbait lortzea nahi izanez gero, beharrezkoa da horrenbeste ordu sartzea.

• Zein da zure helburua kirol hau praktikatzeko?

Askok uste duten bezala, helburu bakarra ez da muskuluak atera eta fisikoa bakarrik lantzearena. Beste kiroletan bezala, denbora atsegin bat igarotzea oso garrantzitsua da. Ondo pasatzea, muskuluak landu eta hauek ezagutzeko izango lirateke nire helburuak.

• Ikasteko asko dago?

Egia esan asko. Elikadurarekin bakarrik hasiz gero, milioika gauza dago ikasteko, entrenamendu arloan



ere berdin gertatzen da. Lantzea nahi duzun atalaren arabera, bai elikadura baita entrenamenduak ere aldatuz doaz.

• Karla, zure kontu praktikatzen duzu fisiokulturismoa?

Mota honetako ekintzetan, hasiera batean gimnasioko monitoreekin hastea komeni da. Ni horrela hasi nintzen, ariketa lasaiak egiten hasi eta denboraz hauek gogortuz.

Ondoren, Saioako monitorea batek ariketa taula bat prestatu zidan, nire kontu egiteko. Honek, ariketa bakoitza sakonago ezagutzeko aukera ematen du, izena eta bakoitza zertarako den ikasten da eta. Gaur egun nire kontu nabil, baina edozein galderen aurrean, beti dago begiraleren bat zerbait hobetzen laguntzen duena.

• Lesio asko egiten dira?

Bai ugari, baina batez ere hasieran. Jendeak hasieratik pisu handia aldatzea nahi du eta berarekin lanean aritzea. Baina hori ezinezkoa da, poliki-poliki hasi beharra dago. Hasieran ez dira ariketak ezagutzen, eta gorputza gauza dela iruditu arren, momentu batera iritsi eta aurrera ez jarraitzeko eskatzen du. Nik

adibidez, adubtore, bular eta sorbaldetako arazoak eduki ditut. Kontuz ibili behar da. Estiramenduak egitea ere funtsezkoa da, bestela lesioak berehala datoz eta.

• Zein motatako ariketak dira zuk egiten dituzunak?

Gehientsuenak makinekin egiten ditut, baita pesekin ere. Bestalde, badaude beste ariketa batzuk, inolako materialik gabe egiten dituzanak; flexioak eta abdominalak adibidez. Bakoitzak lortzea nahi duen arabera ariketak egiten dira. Oraingoan, masa muskularra hartzea da nire nahia.

• Jende askok praktikatzeko du fisiokulturismoa?

Fisiokulturismoa serioki lantzen duen jende gutxi dago. Askok, medikuak gomendatuta hasten dira, beste batzuk ia gustatzen zaien frogatzeko ekiten diote, eta beste hainbat, udan bakarrik joaten direnak dira.

• Zer eskatzen du kirol honek?

Kirol hau gogoz egitea funtsezkoa da, baita pazientzia handia izatea ere. Kirol honetan emaitzak ez dira berehalakoan lortzen. Gainera dieta egokia jarraitzea eskatzen du, baita lo asko eta ondo egitea ere. Beraz, juergarik ez egitea ere suposatzen du. Bestalde, proteina asko hartu behar da, eta nik neuk adibidez, suplementu batzuk hartzen ditut.

Hasiera batean ez nuen oso serioki hartzen, baina denbora pasa ahala, mundu honetan murgiltzen hasi nintzen. Orduetik, nire helburuak aldatu egin dira, beraz orain gehiago zaindu beharra daukat.

• Txapelketaren batean hartu duzu parte?

Egia esan asko gustatuko litzaidake, baina oraindik denbora dextente entrenatu beharra daukat. Txapelketa batetan parte hartzeko, gutxienez 4 urte entrenatzea komeni da.



Apotza-etxebarri auzoa

Azken hiru urtetan Apotza-etxebarriko auzoalkatea da Migel Arenaza. Hala ere, urte guztiak batuta, berrogehi urtetik gora egin ditu auzo-alkate lanetan.

Oro auzoa moduan, Apotza-etxebarri ere elizarik eta kanposanturik ez duen auzoa da.

- Apotza-etxebarri elizarik gabeko auzoa izanik, nola moldatu zarete auzotarrak urte luze hauetan?

- Herriko auzoa izan da gurea. Eliza eta kanposantu bakoa, eta beraz, abaderik ere ez dugu izan. Eliza eta kanposantua herrikoak erabili izan ditugu betik, herriko mezetara joan izan gara.

- Jai edo ohitura berezirik bada auzoan?

- San Blas eguna azpimarratuko nuke. Sailuente ermitara lagun ugari hurbiltzen da egun horretan. Lehen Gatzaga, Araba eta beste leku askotatik etortzen zen jendea. Oraindik ere indar handia du San Blas egunak baina eskolako ume eta jubilatuek jaxten dute eguna gehienbat.

Lehen eliza ostetik senda bat

Migel Arenaza Apotza-etxebarriko auzoalkatea



*“Lausittatik
Apotza-
etxebarri
igotzeko dagoen
senda errespetatu
beharko
litzateke”*

- **Biztanleria:** 28 biztanle.
- **Baserriak:** Sailuente, Kortazar, Unanue, Orueta, Antxustegi, Markole, Errotabarri, San Martin, Landeta (bi etxebizitza).
- **Jaiak:** Andramaixak/otsailaren 3an San Blas eguna ospatzen da bertako Sailuente ermitan.

zegoen oinezkoendako. Orain ganaduak sartzen direlako senda lokatzez beteta egoten da, eta bide hori errespetatu egin beharko litzatekeela uste dut.

- **Baserritik bizi den familiarik bada auzoan?**

- Ez, inor ez da baserriko lanetik bakarrik bizi. Gainera ia ezinezkoa da, bertatik bizitzeko enpresa bat jarritz gero ere, auzoko lur sail guztiak beharko lirateke esplotaziorako. Baserrian norberarendako lain ateratzen da eta gainera urte guztian egoten da lana: basoa garbitu, zelaiak moztu...

- **Udaberria hasi berri dugun honetan, zein lan izaten da ortuan?**

- Martxoa bukaera aldera patata eta kipula ereiten da. Hemendik hilabetera, berriz, artua eta baba.

- **Apotza-etxebarri inguruan zein ibilaldi gomendatuko zeniguke?**

- Jai egunetan gero eta lagun gehiago hurbiltzen da Apotza-etxebarri pasioan. Bertatik Apotzara joan daiteke eta hemendik buelta luzeagoa eman nahi izanez gero, Gellaora. Buelta polita dela esango nuke.



Murura pasioan

asoian batean ohitura haundia zegoen bazkalostean edo domeketako “bezpera” ostean Murura igo eta arratsaldea bertan pasatzeko. “Arratsaldea pasatzeko modu bat zen” gogoratzen du Duni Zuazabeitiak. “Gaur egun Urkulura joaten garen moduan edo eta Untzilara pasioan, edozein bazkalostetan bokadiloa hartu eta Murura joaten ginen”. Ez zeuden ez, gaur moduko bideak, ez eta zapatilarik ere, baina horiek ez ziren aitzaki bihurtzen.

1945. urte ingurua izango zen, goiko argazkian dagoen neska koadrilak Murun argazkia atera zueneko. Arratsalde pasa Murura joan zireneko beste egun bat zen.

Argazkian ezkerretik eskumara: **Mertxe Arkauz, Monika Perez de Mendiguren, Miren Zuazabeitia, Eulali Zuazabeitia eta Duni Zuazabeitia.**

Informazioa: Duni Zuazabeitia

Argazkia: Felis Beltran de Heredia

OHARRA: Kontu zaharren txoko honetarako argazki zaharren bila gabiltza. Beraz, argazki zaharrak atal honetan erakutsi nahi izanez gero, Aretxagazetara ekartzea eskertuko genizueke. Kultur etxean gaude.

Martini

RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

LANA

◆ Martxan dagoen negozioa jabez aldatzen da Aretxabaletan. 79 95 34 telefonora deitu. Angel.

◆ Astebukaeretan edozein lan egiteko emakumea gertu. Tel: 79 62 69. 21:00etatik aurrera.

◆ Neska euskalduna eta esperientziaduna denda batean lan egiteko prest. Tfnoa: 79 81 16 (Estibaliz).

◆ Arrasateko Udalak, **kultur laguntzaileen** lan-poltsa osatu nahi du. Oinarriak udaletxean jaso daitezke. Epea: 98/4/6.

◆ Langaiko lan eskaintza

Kalidatea kontrolatzeko teknikaria. Ref. 6791/2. Deba Garaian kokatutako enpresak.

Sukaldari laguntzailea. Ref. 6074/3. Urola erdian kokatutako enpresa.

Mantenimenduko mekanikoa. Ref. 6342/3. Arabako lautadan kokatutako enpresa.


Komertzial teknikaria. Ref. 6583/4. Urola kostan kokatutako enpresa.

Lau enkofradore. Ref. 6786/3. Ermuako akademia batek.

Industria ingenierua. Ref. 6976/2. Bilbon kokatutako enpresa.

Mantenimendurako teknikaria. Ref. 6989/4. Lea-Artibain kokatutako enpresa.

Bi montadore. Ref. 6832/3. Deba behean kokatutako enpresak.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

◆ Osakidetza

Osasun teknikariak: 29 lanpostu. Aurkezteko epea: apirilak 4.

ATS-emagina ordezkatzeko zerrenda osatzeko. apirilak 4



BEKAK

◆ I. Igartza Literatur Sorkuntzako beka

Idazle berriei zuzendua. Baldintza: 25 urte bete gabe izatea. Proiektuak ekainaren 30a baino lehen bidali behar dira. Argibideak 88 90 94 telefonoan.

◆ Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka

Artea sortzeko beka.

Arizko instrumentuen interprete solistentzako "Nikanor Zabaleta" beka.

Ikertzeko beka.

Musika, dantza antzerkia eta zaharberritzeko arloetan ikasketak burutzeko beka.

Aurkezteko epea: maiatzak 15.

ETXEBIZITZA

◆ 120 m²ko lokala salgai dago herriaren erdialdean. Tfnoa: 79 29 12.

◆ Hornitutako etxea alokatzen da Aretxabaletan, garajeaz. Tfnoa: 79 04 86.



DENETARIK

◆ Karro-denda bat salgai dago. (bi logela). Prezioa: 225.000 pta. Deitu 77 11 87 telefonora.

◆ Gitarra espainola salgai. Egoera onean. Tfnoa: 79 72 39. Carlos.

◆ Super 5 copa turbo-a salgai dago. Egoera onean. 79 75 11/76 56 55.

◆ Erdi tamainako mendi bizikleta salgai. Prezio onean. Tfnoa: 77 08 02.



LEHIAKETAK

◆ **Aramaioko sagitario saria** Gutxienez Europako mendebaldera bidaiatu duen edozein pertsona aurkez daiteke. Bidaian zehar bizitakoak kontaketa literario batean aurkeztuko ditu parte hartzaileak. Aurkezteko epea irailaren 15ean bukatzen da. Informazioa Honako helbidera bidali: udaletxea, 01160 Aramaio, Araba.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 943 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 943 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Aldaketa garaia



Aldaketa sasoia iritsi da Aretxagazetara ere. Martxoko azken egunean Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak urteko batzar orokorra egin ostean, batzordekideak batzuk irten eta beste batzuk berriak sartu dira herriko aldizkarian. Batzordekide berriak, **Gurutze Larri-naga, Aitor Irure, Gorka Etxabe, Koldo Zubizarreta eta Gotzone Arrese** dira. Beste hauek, berriz, irten direnak: **Ines Gartzia, Ana Eriz, Arantxa Eguren, Naiara Arrese eta Unai Loidi**. Bestalde, iaztik jarraitzen dutenak: **Irune Iturbe, Mirari Altube eta Alberto Izagirre** dira. Eskerrik asko guztiei azken bi urtetan herriko aldizkarian egin duten lanagatik eta ongi etorri berriei. Ia ba, gai berriak eta berrikuntzarako ideiak ekartzen dizkiguten azken hauek. Nik neuk behintzat hemen jarraitzen dut, ez dakit aldatzerik

pentsatzen ez nauten edo.

Aretxagazetatik telebistara egingo dugu salto, baina ez herriko telebistara, ETBra baino. **Gorka Etxabek**, "Euskadi hoy Alava" Luis Barreirok zuzentzen duen informatiboan, erredaktore lanak egiten ditu. Probintzi bakoitzean bertako informatiboa ikusten dugu, beraz, Gorkaren ahotsa entzuterik ez dugu izango. Honek Arabako saioa egiten duenez, arabarrek entzuteko aukera izango dute. Dena dela, fitxaje ona egin dugu Aretxagazetarako.

Komunikabideak txapelketen berri emateko leku aproposak izaten dira. Herritar batzuk punteria ona dutela erakutsi digute, horrela, **Carlos Vales** Bergarako dardo txapelketan hirugarren gelditu da. Egia esan, herriko taberna batzutan behintzat aukera ona dago dardoetan entrenatzeko.

Bestalde, datozen bi asteetan xakean buru-belarri ibiliko den beste bat, **Fran Migel** dugu. Franek Donostiako Open xake txapelketan hartuko du parte. Ia ba, hemendik egun batzutara notizi onak heltzen zaizkigun. Gure partetik zorterik onena Franentzat.

Bukatzeko, ez ahaztu apirilean **telefono zenbakiak** luzatuko direla. Beraz, aurrerantzean bederatzi zenbaki markatu beharko ditugu: probintzikoa eta orain arteko telefono zenbakia. Honetara ere ohitu beharko dugu.

Liburutegiko txokoa

Urtero bezala apirilaren 2an Haurren Liburuen Nazioarteko eguna ospatzen da, Hans Christian Andersen idazle Daniar ospetsuaren jaiotza gogoratzuz. Urtero herri batek hartzen du hori iragartzeko kartela egin eta hurrei zuzendutako mezu bat zabaltzeko ardura. Aurten zer egin hori Belgiarrek hartu dute bere gain eta honako kartela eta mezua argitaratu dute: **Liburua zabaldu eta magia azaldu**



© Gabrielle Vincent

Eguzkia dir-dir euria ugari maitasunak gorroto gudu ankerrari

Neskak aldakor mutilak egoskor istorioetan sarri dena gertagarri.

Udaberria datorke martxo edo ekainean hitzak kantari doinurik isilenean.

Mamua izugarri bihotzak odoletan zernahi gertatzen da eleberri-ipuinetan

Liburua amaituta irribarreak berean edozer sartzten baita istorioaren sarean

Bart Moeyaert

Joseba Lopez de Armentia

APIRILA

10

26

egukotxa

domeka

3

egukotxa

BATZAR OROKORRA

Murrukixo M.E.ak urteko batzar orokorra egingo du 7,30etan Murrukixoko lokalean.

MENDI IRTEERA

Zaraia M.T.ak Gipuzkoako itzuliaren barruan, **Gesalibar-Arlaban** itzulia egingo du.

9-12

ASTE SANTUKO ELIZ-OSPAKIZUNAK

GURUTZ-BIDEA

Egukotx Santuko ekitaldian Gurutz-bidea egingo da goizeko 11etan parrokiatik Isurietako San Pedro elizara.

5

domeka

MENDI IRTEERA

Zaraia M.T.ak **Otzaurte-Txurrukopunta-Ultzama-Otzaurte** ibilaldia egingo du. Irteera goizeko 8etan Nafarroa kaletik.

10

9

egüena

21

martizena

MENDI IRTEERA

Zaraia M.T.ak Gipuzkoako itzuliaren barruan, **Ermua-Santa Ageda** itzulia egingo du.

ELGEAKO ZENTRAL EOLIKOAREN AURKAKO PRENTSAURREKOA

Arrasateko udaletxean arratsaldeko 6,30etan.

ELGEAKO ZENTRAL EOLIKOAREN AURKAKO IBILALDIA

Amuategi eta Leixargaratera irteera egingo da, goizeko 9etan Koruetatik. 12etan gailurrean elkartuko dira Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara eta Arabatik datozen guztiak. Eguerdiko ordu batean Leixargarateko txabolan trikitilariak, salda, panelak eta hitzaldia egingo da.

OHARRA: Kolonbiako Espiritu Santu Ikastetxeko haurren alde ateratako errifen zozketan zerbaki saritua **3178** izan da.

(Kontaktua: 943 799911 Antzine). Hamabost egunetara sariturik agertuko ez balitz **2969** izango da sarituko den zenbakia.

Anzoetako mezak:

Apirila (domeka guztietan)

- Gellaon 11etan.
- Arientzan 12etan.
- Mendiolan ordu 1etan.

Z
I
N
E
A



ZUZENDARIA: James Cameron.
AKTOREA: Leonardo DiCaprio eta Kate Winslet.

Titanic

1912ko apirilean, 1.500 bidaiari zeramatzan Titanic untzia itsasoratu egin zen. Ordutik, Rose DeWitt Bukater aristokraziako gaztea (Kate Winslet) eta Jack Dawson (Leonardo DiCaprio) abenturazalearen arteko amodioaren sekretuak itsas hondoa gorde dira...

IKASTAROAK

ARDOARI BURUZKO
IKASTARO LABURRA

AEDko Kultura sailak antolatuta apirilaren 20an hasi eta maiatzaren 13an bukatuko da. Ardo motak, txuria, beltza, bakoitzaren ezagugarriak, kriantza, aholkuak... emango dira. Saioak astelehen eta asteazkenero arratsaldeko 7,30etatik 9,30etara bitartean izango dira. Izen ematea AEDn apirilaren 16a baino lehen.

UDALEKU IREKIETAN
APUNTATZEKO EPEA
ZABALIK

Datorren apirilaren 2tik 27ra bitartean, uztaileko udaleku irekietan begirale izateko epea zabalitzen da. Baldintza: 18 urtetik gorakoa izatea eta euskaraz jakin eta hitz egitea. Apuntatzeko Ortzadarren ostiraletan arratsaldeko 6etatik 8etara, ludotekan edo kultur etxean.

BEHARREZKO
TELEFONOAK

943...

Aretxabaleta

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltegia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Kurtzebarri Eskola B.H.I.	79 57 40
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11



Udaleku irekietan begirale izateko apuntatzeko epea zabalik dago

Z A R A I A Z I N E M A

Apirilak 5
TITANIC
Apirilak 17, 18, 19, 20
LOS ANGELES
CONFIDENTIAL

Oharra: Datorren domekan apirilaren 5ean Titanic pelikula botako da Zarai zineman. Ordutegia: 16:45/21:45.

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00



Salamancan jaioa bada ere, hamaika urte daramatza Aretxabaletan Juan Fraile botikariak. Zaletasun nagusia irakurtzea du, eta farmaziako aldizkari profesionalak irakutzen denbora asko pasatzen du, lanbide honetan egunean egotea oso garrantzitsua baita.

- **Nola etorri zinen Aretxabaletara?**
Botikari plaza hau atera zen eta emaztea Euskal Herrikoa denez, hona etortzea erabaki genuen.
- **Non egin duzu lan hemen baino lehenago?**
Zaragozako herri txiki batean lan egin nuen.
- **Non egin zenituen ikasketak?**
Salamancan.

“Gure lanbideak egunean egotea eskatzen du”

• **Jendeak errezetatu gabeko botika asko erosten du?**

Ez, normalean errezetatutakoak izaten dira, edo eta, guk gomendatutakoak.

• **Estularendako erremedio naturalik emango zeniguke?**

Beti gomendatzen dugu ur asko edatea, baita eukaliptus, menta, etabarren lurruna hartzea.

• **Zein medikamentu da jendeak gehien erabiltzen duena?**

Acido acetil salicilico paracetamol, con condaina, aspirina moduan ezagutzen duguna.

• **Gaiez aldatuz, non ezagutu zenuen emaztea?**

Udan Oriora etortzen nintzen eta bertan ezagutu nuen, bera Zumaiakoa da.

• **Zer da Euskal Herriatik gehien gustatzen zaizuna?**

Paisaia asko gustatzen zait.

• **Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?**

Etxean egotea gustatzen zait, irakurtzea, mendira joatea eta baita lagunekin egotea ere.

• **Zer irakurtzen duzu?**

Farmaziako aldizkari profesionalak eta bestelako liburuak. Lanbide honek egunean egotea eskatzen du.

• **Zein liburu gomendatuko zeniguke?**

“Filomeno a mi pesar” Torrente ballesterena.

• **Zer egingo duzue Aste Santuan?**

Guardia tokatzen zaigu. Hala ere, hurrengo astea jai hartuko dugu eta kostaldera joango gara, Zumaia eta Donostiara.

• **Kotxe barik biziko zinateke?**

Bai.

• **Zer botatzen duzu faltan Aretxabaletan?**

Teniseko pistak egongo balira, tenisa praktikatuko nuke.

• **Zein janari duzu gustokoen?**

Denetatik gustatzen zait, arraina asko, legatza esaterako.

• **Amestutako lanbidea?**

Margolaria.

• **Erroparik erosoena?**

Fraka bakeroak.

• **Erosteko denda haundiak ala txikiak?**

Txikiak gehiago erabiltzen ditut.

• **Zer egingo zenuke loteria tokatuz gero?**

Ez dut erosten.

• **Zer gehituko zenuke Aretxabaletan?**

Osasun aholkuak.

• **Bukatzeko Juan, zer eskatzen diozu gaur egungo gizarteari?**


Tolerantzia eta gizarte humanitarioagoa izatea.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe

EXAMINARI ITXOITEN, LANA NOIZ LORTUKO ITXOITEN,
NORBAITI ITXOITEN,
BERAK NIRE DENBORA BETE DEZAN ITXOITEN ...
(Negu Gorriak)



Kreditu lasaigarria




Itxaroterik ez duen horretarako, Kreditu Lasaigarria.

Kotxe, altzari edo itxaron ezin duen beste zerbaitetarako dirua behar baduzu, kuota malgodun Kreditu Lasaigarria duzu. Zure beharren arabera kuotaren zenbatekoa aldatzeko aukera ematen dizun bakarra. Gastu gehien duzunean gutxiago ordaintzeko eta hilabete lasaietan gehiago ordaintzeko. Informa zaitez Euskadiko Kutxaren Sukurtsaletan edo 901-333 444 telefono zenbakian.

**Kuota
Malgua**




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun
zuzena

BAKARRIK EUSKAL HERRIAN GOZATU AHAL IZANGO DUZU IZARRA SORTAZ.

Bakarrik hemen aurkitu ahal izango duzu Escort Izarra, auto bat geure errepideetarako bereziki diseinatua, geure gustukoa. Horregatik ekipametu hau darama:

Lainotako faroak

Airbag

Lagundutako direkzioa

Pintura metalizatua

Kristal igogailu elektrikoa

Itxitura zentralizatua

3000 irratikaseta bozgorailuekin eta karkasa erauzgarriarekin



IZARRA 1.8 Turbodiesela 1.880.000 pta

Gainera, Prever egitasmoari esker, 80.000 pta merkeago aterako zaizu.

Hurbil zaitetz zure Ford saltokira eta informa zaitetz Euskadirako bakarrik den serie mugatu honetaz.

Eskura ezazu

*Multi
Opción*

cal Herriko Ford saltokien sarearen eskaintza. BEZ, garraioa eta matrikulatze zerga barne. Matrikulatze gastuak ez daude sartuta. Promozio beharpenak barne. Eskaintza hau ezin da beste kanpaina batzuekin nahatu.

ARABA, GIPUZKOA ETA
BIZKAIKO FORD SAREA

MUGARRI

